

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Deialdi publikoa eta oinarriak, Vitoria-Gasteizko udalerriko txikizkako merkataritzaren sektoreko enpresetan belaunaldi-erleleboa sustatzeko 2026ko laguntzetarako

2026ko maiatzaren 29an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko udalerriko txikizkako merkataritzaren sektoreko enpresetan belaunaldi-erleleboa sustatzeko laguntzen 2026ko deialdi publikoa eta oinarriak onestea.

Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten entitate eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak.

Erabaki horrek administrazio-bidea amaitzen du, eta beraren kontra zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, aldeztu aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo presuntzioz ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren oinarri arautzaileen publikitateari buruz araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen da haien edukia:

Arau-esparrua

Vitoria-Gasteizko txikizkako merkataritzaren sektorean belaunaldi-erleleboa sustatzeko laguntzetarako 2026ko deialdi honek deialdiaren beraren oinarriak eta dirulaguntzen ordenantza orokorra (ALHAO, 88. zenbakia, 2023ko uztailaren 28koa; 2023ko urriaren 1ean sartu zen indarrean) izango ditu arau. Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko udal indarrean ordenantza aplikatuko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildoak

Laguntza hauek indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan (2025-2027) aurreikusten dira, zeinari 2025eko urtarrilaren 17an eman baitzion hasierako onespina Vitoria-Gasteizko Udalari Tokiko Gobernu Batzarrak. Planak dirulaguntza-ildo honen barruan kokatzen du laguntza hori: “Merkataritzako, zerbitzu pertsonaletako eta ostalaritzako enpresa txikiei zuzendutako laguntzak” (08_05_v05 fitxa). Ildo horren helburua egungo merkataritza- eta ostalaritza-egiturari eustea eta sendotzea da, lehiakorrago izan dadin, eta kontsumo jasangarri eta gertuko erreferente bihurtzea bertakoentzat eta bisitarientzat.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Vitoria-Gasteizko udalerriko txikizkako merkataritzaren sektoreko enpresetan belaunaldi-erleboia sustatzeko dirulaguntzak norgehiagoka bidezko konkurrentzia-araubidean emateko baldintzak ezartzea.

Laguntza honen helburua da negozio bideragarriak ez ixtea eta haien jarraipena sustatzea, belaunaldi-erleboaren bidez negozioak eskualdatzen lagunduz.

Laguntza ekonomiko hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta lehia bidezko konkurrentzia-araubidean emango dira, hau da, dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, haien arteko lehentasuna ezartzearen, deialdian alde aurretik ezarritako balioespen-irizpideen arabera, Vitoria-Gasteizko Udalen dirulaguntzen ordenantza orokorraren III. kapituluarekin eta 19.1 artikuluekin bat etorritik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

3. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak

Oinarri hauen ondorioetarako, hau joko da belaunaldi-erlebotzat: negozio finkatuen eskualdaketa, zeina gertatzen baita negozioaren titularraren erretiroagatik edo erretiro-adinetik hurbil egoteagatik (55 urte edo gehiago) edo gerora sortutako arrazoiengatik (hala nola ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia, edo titularraren heriotza), halako moldez non merkataritza-jarduera beraren iraupena bermatzen den.

Entitate eskualdatzailea merkataritza-sozietate bat, sozietate zibil bat edo ondasun-erkidego bat bada, gutxienez enpresako bazkideen erdiek bete beharko dituzte baldintza horiek.

Negozio finkatutzat hartuko da jarduera amaitzen denean gutxienez 6 urteko antzintasuna duena. Gehienez ere 12 hilabete izango dira, titular berriari alta eman zitzaionetik, eskualdatzen den negozioa jardunean egon zela; epe hori baino luzeagoa igaro bada, ez da dirulaguntzarik emango.

Diruz lagundu daitezkeen ekintza eta gastutzat hartuko dira zuzeneko lotura dutenak belaunaldi-erleboaren eta negozioa eskualdatzearen prozesuarekin; 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko irailaren 30era artekoak (egun hori barne) izan beharko dira.

Diruz lagundu daitezkeen ekintzak eta gastuak bi ildo hauetan banatzen dira:

3.1. Merkataritza-enpresa baten erleboia: txikizkako merkataritzako negozio kontsolidatu baten titulartasuna eskuratzen duten pertsona fisiko edo juridikoak, betiere negozio horrek aurrez aipatutako arrazoiengatik utzi badu jarduera eta negozio berriak ekonomia-jardueren gaineko zergan aurreko negozioaren epigrafe eta lokal berean egin badu alta.

3.2. Enpresa-transmisioko prozesua formalizatzeari lotutako gastuak:

— Notariotza-gastuak eta aholkularitza eta laguntza teknikoarekin zerikusia duten gastuak, eskualdaketa- eta lagapen-akordioei, balorazioari, familia-protokoloari, erregistroari eta besteri dagozkionak.

— Negozioaren ondasunak eta eskubideak eskualdatzeari dagozkion gastuak (merkataritza-funtsa, ekipamendua...). Gastu horiek negozioa eskualdatzeko edo saltzeko kontratu batean gauzatu beharko dira, eta kontratu horretan guztirako prezioa, ondasunen eta eskubideen xehakitzea eta kontratuaren objektua jaso beharko dira.

Egindako gastuak behar bezala jaulkitako fakturen bidez egiaztatuko dira, lehen adierazitako datetan. Faktura horiek ordaindu direla egiaztatzeko, dagozkion ordainagiriak aurkeztu beharko dira Vitoria-Gasteizko Udalean (ikus 10. oinarria – Nahitaezko dokumentazioa), eskabideak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabetera. Adierazitako epean behar bezala justifikatuta dauden ordainketek baino ezingo dute jaso dirulaguntza.

4. oinarria. Ez dira diruz lagunduko

- Erakusteko eta probatzeko gauzak, eta gerora salgai jar daitezkeenak.
- Tasak eta bestelako administrazio-baimenak, lizentziak edo antzekoak, eta inolako zerga edo tributurik ordaintzea.
- Lokala erostea, alokairu-errentak eta frankizietan sartzeko kanonak.
- “Diruz lagundu daitezkeen ekintzak eta gastuak” izeneko 3. oinarrian berariaz diruz lagundu ezin den beste edozein kontzeptu.

5. oinarria. Dirulaguntzak jakinarazi edo argitaratzeko bidea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko (vitoria-gasteiz.org) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazita, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoa ere, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

6. oinarria. Onuradun izateko baldintzak

Merkataritza-jardueraren bat duten pertsona fisiko nahiz juridikoak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badiutze dirulaguntza-eskabidea egiten duten unetik:

1. Enpresa txikiaren betekizunak betetzea eskaera aurkezteko unean: 50 langile baino gutxiago izatea eta negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea.

2. Aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresekin loturarik ez izatea.

3. Eskualdatutako negozioak gutxienez 6 urteko antzintasuna izan beharko du, eta ez igaro izana 12 hilabete baino gehiago jarduera utzi zenetik. Jarduera uztea honako arrazoi hauetako-
ren batengatik gertatu izana: erretiroa, edo negozioaren titularra erretiro-adinetik hurbil egotea (55 urte edo gehiago) edo gerora sortutako arrazoiak (ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia) edo titularraren heriotza. Entitate eskualdatzailea merkataritza-sozietate bat, sozietate zibil bat edo ondasun-erkidego bat bada, gutxienez enpresako bazkideen erdiek bete beharko dituzte baldintza horiek.

4. Beren merkataritza-jarduera Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatutako lokal batean gauzatzea — Vitoria-Gasteizko toki-entitate txikiak ere barne direla —, industrialdeetan izan ezik. Lur-arrasean kokatuta egon beharko du lokalak, erakusleihoa eduki behar du, eta jendearentzat irekita egon, ohiko merkataritza-ordutegian. Azoketako nahiz merkataritza-zentro edo -galeria pribatuetako establezimenduak ere aintzat hartu ahalko dira.

Ez da beharrezkoa izango eskabidea egiten duten pertsona edo enpresek helbidea Vitoria-Gasteizko udalerrian edukitzea.

5. Jarduera utzi duen enpresak egiten zuen jarduerari jarraipena eman beharko dio pertsona fisiko edo juridiko onuradunak, eta kokaleku berean.

6. Ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda egon beharko du enpresak, eskabidean adierazitako lokalean/lokaletan sektoreari dagokion merkataritza-jarduera eduki beharko du, eta jendearentzat irekita egon, behintzat dirulaguntza eskatzen duenetik.

Enpresaren jarduera nagusia ekonomia jardueren gaineko zergaren multzo edo epigrafe hauetakoren batekoa izatea:

– 64: janari, edari eta tabako salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbuespenak 646: tabako-gaien eta erretzaileentzako artikuluen salerosketa; eta 647.5: janari eta edarien horniketa —tabakoa salbu— makina automatikoen bidez).

– 65: janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbuespenak: 652.1: farmaziak: botika eta osasun eta higiene produktuen salerosketa, txikizka; 654.3: airetiko ibilgailuena; 654.4: ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: makinena; 654.6: mota guztietako ibilgailuetarako gurpil-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: erregai eta lubrifikatzaileen salerosketa, txikizka).

– 662.2: era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.

– 691.1: etxeko tresna elektrikoen konponketa.

– 691.9: beste kontsumo-ondasun batzuk konpontzea, b.i.s.g

7. Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren bi epigrafe edo gehiagotan alta emanda badago enpresa, onuraduntzat joko da baldin eta jarduera nagusia diruz lagundu daitezkeen multzo edo epigrafeetako baten barruan badago eta egiten dituen ekintzak jarduera horri badagozkio. Ekonomia jardueren gaineko zergan adierazitako azalaren banaketa kontuan hartuz zehaztuko da jarduera nagusia, hau da, azalera erabilgarririk handiena duen hura joko da jarduera nagusitzat.

8. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak egunean edukitzea, edo, halakorik ezean, baina beste administrazio batzuetan tributuak ordaintzeko betebeharra badu, beste administrazio horiekikoak. Tributuak udal honetan edo Foru Aldundian ez baizik eta beste administrazio batzuetan ordaintzen dituzten banakako enpresariak edo enpresek ziurtagiri hauek aurkeztu beharko dituzte: tributuak ordaintzeko betebeharra zein administrazioan duten, haiena, Udalak ezin baititzake ofizios egiaztatu.

Banakako enpresaburuak edo enpresak bete beharko du betekizun hori, eta sozietate zibila edo ondasun-erkidegoa bada, sozietateak zein haren bazkide guztiek, industrial zein kapitalistek; eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren tramitazio-prozesu osoan ere bete beharko da betekizun hori, eskabidea aurkezten den unetik bertatik, eta indarrean iraun beharko du dirulaguntzaren eskaera tramitatzeko prozesu osoan (dirulaguntza esleitzean, obligazioa onartzean eta ordaintzean).

9. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak egiten dituztenak ere (elkartek, lanbide-elkargoak eta abar).

10. Aurreko ekitaldietan dirulaguntza-ildo honen onuradun izan ez izana, diruz lagundu daitezkeen ekintza eta gastu berberengatik.

7. oinarria. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak 2026ko ekitaldirako udal-aurrekontuko 2026/08.22 4314.471.02 “Merkataritzako errelebo-, handitze- eta dibertsifikazio plana” partidaren kontura finantzatzeko dira, 100.000,00 euroekin guztira.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan ezarritakoaren ildotik, aurrekontu-zuzkidura hori handitzeko modua izango da, organo eskudunaren erabaki baten bitartez, baldin eta udal sail horrek kudeatutako dirulaguntza-partidetan (guztiak kontuan hartuta) krediturik badago. Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan, kreditu erabilgarria badagoelako deklarazioa egin beharko da, eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan (deialdia argitara eman zen bitarteko berberetan).

8. oinarria. Bategarritasuna edo bateraezintasuna beste laguntza eta dirulaguntza batzuekin

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publikok edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin.

Nolanahi ere, eskuratzen diren dirulaguntzen/laguntzen baturak ezingo du gaintitu dena delako kontzeptuaren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza edo baliabiderekin batera.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

9. oinarria. Indarraldia eta eskabideak aurkezteko epea eta bideak

9.1. Eskabideak aurkezteko epea oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean hasiko da, aldez aurretik Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuta, eta 2026ko irailaren 30ean amaituko (egun hori barne).

9.2. Deialdi honetako 6. oinarrian adierazitako betekizunen arabera onuradun izan daitezkeen enpresek laguntza eskabide bana aurkeztu beharko dute jarraipena eman dion negozio bakoitzeko.

9.3. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

– Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal izango da, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako, identifikazio-txartel digital bat erabili beharko da.

– Aurrez aurre:

– Udalaren bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30 - 14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

– Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

Aurrez aurre arreta emateko gunean dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. b artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonak tramitazioak iraun bitartean, hartara eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko behar diren abisuak helarazteko, legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra gorabehera.

9.4. Interesdunek eskabidea (I. eranskina) aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

9.5. Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

10. oinarria. Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza-eskabideei:

10.1. Pertsona edo enpresa eskatzaileari dagokionez:

– Eskabide-orria eta zinpeko aitorten sinatua: I. eranskina.

Deialdiaren 6.8 oinarrian jasotzen den bezala, eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 12 e) artikuluekin bat etorriz, ofizioz egiaztatuko da ea eskatzaileak egunean dituen Vitoria-Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, salbu eta onuradunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanez. Eskakizun hori dirulaguntza esleitzen denean, ordaintzeko obligazioa onartzen denean eta dirulaguntza ordaintzen denean eduki beharko da beteta.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitu Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, enpresan bazkide diren guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

- Pertsona fisikoen kasuan: NANaren kopia.
- Ondasun-erkidegoaren edo sozietate zibilaren kasuan, honako hauen kopia:
 - IFZ.
 - Sozietate eratze eskritura.
 - Ordezkaritza-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiria.
 - Pertsona juridikoen kasuan, agiri hauen kopiak:
 - IFZ.
 - Enpresaren eratze-eskriturak, eta geroko aldakuntza-eskriturak, enpresaren ordezkari eta egoitza sozialari eragiten badiete.
 - Ordezkaritza-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiria.
 - Pertsona fisiko eskatzailearen edo sozietate eskatzailea osatzen duten pertsonen lan-bizitzaren txostena.
 - Soldatepeko langilerik badu: azken hilabeteko langileen zerrenda izenduna, Gizarte Segurantzak jaulkia.
 - Eskualdatzailea kontratatu bada: kontratazioaren ondorengo hilabeteko langileen zerrenda izenduna.
 - Genero-berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu duten enpresek II. eranskinean zehaztu beharko dute hori, eta bertaratze-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

10.2. Jarduera uzten duen edo negozioa eskualdatzen duen pertsonari edo enpresari dagokionez:

- Pertsona fisikoen kasuan: NANaren kopia.
- Pertsona juridikoen, sozietate zibilaren edo ondasun-erkidegoaren kasuan, 6.3 oinarrian adinari dagokionez jasotako baldintzak betetzen dituzten enpresako bazkideen NANaren kopia.
- Hala badagokio, eskualdatzailearen ezintasuna edo heriotza egiaztatzen duen dokumentazioa.

10.3. Diruz lagun daitekeen proiektuari dagokionez:

- Azalpen memoria, II. eranskinaren arabera (enpresaren deskribapena eta proiektuaren memoria kualitatiboa eta kuantitatiboa).
- Eskualdaketarekin zerikusia duten gastu diruz lagungarriak egiaztatzeko ordainagirien kopiak.
- Hala badagokio, parte hartzen duten bi alderdiek sinatutako errelebo-kontratua edo negozioa eskualdatzeko akordioa, eskualdatzearen guztizko prezioa eta eskualdatzearen parte diren elementuen deskribapen xehatua adierazita.
- Aurkeztutako fakturen ordainagiriak eta, hala badagokio, errelebo-kontratuan edo negozioaren eskualdaketan adostutako prezioa:

Ordainketaren banku-egiaztariak aurkeztu beharko dira. Ez da onartuko banku-egiaztaririk baldin eta gutxienez behar diren datuak jasotzen ez baditu garbi eta argi egiaztatzeko enpresa eskatzaileak enpresa hornitzaileari ordaindu diola ordainagiria. Oro har, ez dira egiaztari gisa onartuko internet bidez eskuratutakoak, banku-erakundeak balioztatuta edo zigilatuta ez badaude.

Dirutan egindako ordainketen egiaztagiria edo enpresa hornitzaileen kobrantza-egiaztagiria onartzeko, ezinbestekoa da ordainketak egiteko unean indarrean dagoen lege-mugatik beherakoa izatea hornitzaile beraren fakturaren edo faktura multzoaren zenbatekoa, guztira, eta haietan ordaintzeko beste modurik ez adieraztea.

— Justifikazio-kontu arrunta, behar bezala beteta (ikus eranskina).

Vitoria-Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko ditu EJZrekin lotutako alderdiak, bai eskatzailearenak, bai eskualdatzailearenak, hasierako jardueraren antzintasuna, epigrafea eta mantentzea egiaztatzeko.

11. oinarria. Eskabidearen akatsak zuzentzea

Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 20.4 artikulua ildotik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan errekerituko dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, betiere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

12. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

12.1. Dirulaguntza hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta norgehiagoka bidezko konkurrentzia-erregimenean emango dira, hau da, dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, haien arteko lehentasuna ezartzearen, deialdian alde aurretik ezarritako balioespen-irizpideen arabera, Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren III. kapituluarekin eta 19.1 artikuluekin bat etorritik.

12.2. Instrukzioa eta ebazpena

Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. balioespen-batzorde bat eratuko da horretarako, honako kide hauek osatua:

— Lehendakaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendaria edo hark ordezkotzen duena.

— Idazkaria: Merkataritza Zerbitzuko burua, edo hark ordezkotzen duena.

— Enpresen Zerbitzuko burua, edo hark ordezkotzen duena.

Eskabideak jaso eta izapidetzeko onartu ostean, eta eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, balioespen-batzorde teknikoak txosten arrazoitu bat egingo du, eta bertan zehaztuko egindako balioespenaren emaitza eta horien arteko lehentasuna. Organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena egin ondoren, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak eskuordetzeari buruz 2025eko maiatzaren 16an hartutako erabakiarekin bat etorritik.

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko ebazpenak amaitu egingo du administrazio-bidea, eta, beraren kontra, zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, alde aurretik, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertze-errekurtsoa espresuki edo presuntzioz ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera Administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

13. oinarria. Ebazteko epea

Prozeduraren ebazpena eman eta argitaratzeko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunaren biharamunetik.

Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsitzat jo ahalko dituzte interesdunek, administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

14. oinarria. Onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek edo pertsonak honako betebeharrak izango dituzte:

— Udalaren egiaztatze-jarduketan eta finantza-kontrolakoen mende jartzea, eta/edo Udalaren Kontu Hartzailetza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako jarduketan mende eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende.

— Udal laguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza, dirulaguntza, diru-sarrerak edo baliabiderik jasoz gero, Udalari jakinaraztea.

— Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

— Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

— Erreleboa gertatuko deneko ekonomia-jardueran aritzea Gasteizko udalerrian kokatutako merkataritza-lokal batean, dirulaguntza ematen denetik 2 urtean gutxienez.

Adierazitako epe hori igaro aurretik ixten bada establezimendua, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio Udalari, eta emandako dirulaguntzaren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik bi urteko epe hori (dirulaguntza eman zen egunetik) betetzeko falta den denborarekiko proportzioan. Salbuespen gisa, ez da jasotako dirulaguntza itzultzeko eskatuko, eman zenetik bi urte igaro ez badira ere, titularrak gaixotasun larria duelako edo hil delako ixten bada negozioa.

15. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauei jarraituko zaie aurkezten diren proiektuak balioesteko:

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA
1. Erreleboaren ondorioz, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta bat egin izana	25 puntu
2. Merkataritza-jardueraren eskualdatzailearen eta hartzailearen artean lan-harreman bat egon izana erreleboa egin aurreko edo ondo-ondorengo aldian - 3 hilabetetik beherako esperientzia: 10 puntu - 3 eta 9 hilabete bitarteko esperientzia: 12 puntu - 9 hilabetetik gorako esperientzia: 15 puntu	15 puntu
3. Sektorea gaztetzea: eskatzaileak (edo, behintzat, enpresa eskatzaileko titularren %50ek) 35 urte edo gutxiago izatea	15 puntu
4. Errelebo-prozesu tutorizatu, belaunaldi-erreleboa sustatzeko programa publiko baten barruan Eskatzaileak berariaz adierazi beharko du hori II. eranskinean, eta ofizioz egiaztatu ahal izango da	15 puntu
5. Eskatzaileak gutxienez urtebeteko esperientzia izatea merkataritza-jarduera hasiko duen azpisektorean Eskatzaileak nortasun juridikoa badu edo ondasun-erkidego edo sozietate zibil bat bada, baldintza hori bete beharko du sozietateko kideetako batek gutxienez	10 puntu
6. Jarraipena emango zaion negozioak besteren konturako enplegua sortzea - 1 eta 2 langile artean: 5 puntu - 3 eta 5 langile artean: 8 puntu - 5 langile baino gehiago: 10 puntu	10 puntu
7. Erakunde ofizial batek genero-berdintasunaren arloan gutxienez 8 orduko prestakuntza-ikastaro bat eman izanaren ziurtagiria duten langileak dituztela egiaztatzen duten enpresak (Alderdi hori II. eranskineko oroitidazki deskriptiboan jaso beharko da)	5 puntu
8.- Gehienbat emakumeak buru dituen proiektua izatea (enpresa eskatzailearen titularren % 50, gutxienez)	5 puntu
Gehieneko puntuazioa	100 puntu

Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 20.1 m artikulua betez, berdintasun arloko eta genero-ikuspegia txertatzearen arloko ekintzak sartu dira balioespen-irizpideen artean, eta baremo osoaren ehuneko 5eko balioespena izango dute gutxienez.

16. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzeko

Norgehiagoka bidezko konkurrentzia baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa. Hortaz, alderatu egingo dira aurkeztu diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 15. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

“Merkataritza-enpresa baten erreleboa” atalean jasotako kontzeptua lagunduko da diruz, 2.000,00 euroko gutxieneko zenbatekoarekin, eta 7.000,00 euroko gehienekora iritsi ahal izango dira gehieneko puntuazioa (100 puntu) lortzen duten proiektuak. Puntuaziorik handienaren eta gutxienekoaren arteko gainerako proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko.

3.2 atalean jasotako “3.2 Enpresa-transmisioko prozesua formalizatzeari lotutako gastuak” izenekoan dirulaguntza kalkulatzeko, ekintza horregatik diruz lagundu daitezkeen gastuen ehuneko 50eko ehunekoa aplikatuko zaio, gehienez ere 5.000,00 euro.

Balioespen-irizpideak aplikatuta ateratako guztirako puntuazioaren arabera hurrenkerari jarraituz esleitu dira dirulaguntzak, harik eta baliagarri dagoen aurrekontu-kreditua ahitu arte.

Aurrekontu-kreditua ez bada hurrenkerari jarraituz dirulaguntza jaso behar duten azken eskabideari osorik erantzuteko adina, dagoen zenbatekoa baino ez zaio ordainduko eskabide horri.

Berdinketarik izanez gero eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aurrekontu-kreditu nahikorik ez badago, 15. oinarriko (balioespen-irizpideak) 1. irizpidea (“Errelebo-ekintzak alta berri bat eragin izana Langile Autonomoen Araubide Berezian-LAAB”) aplikatu ondoren lortutako balioespena hartuko da kontuan eskabideen artean lehenespena egiteko.

Berdinketak jarraitzen badu, kontuan hartuko da 2. irizpidea aplikatu ondoren lortutako balioespena (tutoretzapeko errelebo-prozesua belaunaldi-erreleboa sustatzeko programa publiko baten barruan).

Berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideari Vitoria-Gasteizko Udalaren erregistroan sarrera noiz eman zaion kontuan izanik.

17. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea

Honela tramitatuko da proiektuak garatzeko emandako laguntzen ordainketa:

– 3.1 atalean jasotzen den kontzeptuagatik (“Merkataritza-enpresa bateko erreleboa”) emandako dirulaguntzaren zenbatekoa dirulaguntza emateko ebazpena onetsi ondoren ordainduko da.

– 3.2 atalean jasotako kontzeptuagatik (“Enpresa-transmisioko prozesua formalizatzeari lotutako gastuak”) emandako dirulaguntzaren zenbatekoa kontzeptu honengatik diruz lagundu daitezkeen gastuen justifikazioaren arabera ordainduko da.

Laguntzak ebazteko orduan gastu guztiak justifikatuta badaude –eskabidearekin batera eskatutako dokumentazio guztia aurkeztuta, justifikazioko kontu arrunta barne–, ordainketa bakarrean emango da laguntza, une horretan bertan.

– Justifikatzeke dagoen laguntzaren zenbatekoa hura 19. oinarrian ezarritako baldintzetan justifikatu ondoren ordainduko da.

Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, pertsona edo entitate onuradunak eskabidean horretarako adierazten duen kontu korrontean.

Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, eta ezta ere artean ere zordun bada, dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik.

Era berean, ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

18. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan edozein aldaketa funtsezko gertatuz gero, gerta liteke ebazpena aldatu beharra, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du— 64. artikuluan eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

19. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua

3.2 “Enpresa-eskualdaketa prozesua formalizatzeari lotutako gastuak” atalean jasotzen den kontzeptuagatik onuradun izan den pertsonak justifikatu egin beharko du eman zaion dirulaguntza, aldezturik aurkeztutako fakturen ordainagiriak aurkeztuz (ikus 10. oinarria, Nahitaezko dokumentazioa), eskubideak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabeteko epean.

Adierazitako epean behar bezala justifikatuta dauden ordainketek baino ezingo dute jaso dirulaguntza.

Justifikazio-kontu arruntaren bidez egingo da justifikazioa, non, gutxienez eta oro har, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 33. artikuluan zerrendatutako dokumentuak jasoko baitira. Horretarako, justifikazio-kontu arruntaren eranskina bete beharko da (ikus eranskinak).

20. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahalko ditu, emandako laguntzak xede aurreikusietara behar bezala bideratzen direla bermatzeko, eta, hala, eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote enpresa onuradunek. Horretaz gain, Udaleko Kontu Hartzailetza Nagusiaren eskumena da Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

21. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzultzea dagokiola erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren II. kapituluan eta Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da itzulketa-prozedurari, kausei, preskripzioari eta itzultzeko betebeharra dutenei dagokienez.

22. oinarria. Datu pertsonalen babesa

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak “Sailaren jardueren kudeaketa” izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

23. oinarria. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakarta printzipioak (Giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak).

Horrela, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, pertsona onuradunaren proiektuak bat egingo du Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko maiatzaren 29an
*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkaria*
MARÍA NANCLARES CABALLERO

Eranskinak

Eskabidea eta zinpeko aitortpena	I. eranskina <u>Txikizkako merkataritzaren sektoreko enpresetan belaunaldi-erleleboa sustatzeko laguntzak</u>
Proiektuaren oroitidazki deskriptiboa	II. eranskina <u>Gasteizko udalerrian merkataritza, zerbitzu pertsonalak eta ostalaritzaren alorretako enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko dirulaguntzak</u>
Justifikazioko kontu arrunta	Justifikazioari buruzko eranskina <u>Justifikazio-kontu arrunta</u>